



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO EKAINAREN 25EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarerratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko ekainaren 25ean arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2009ko apirilaren 4an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2009ko maiatzaren 12an ospatutako ez ohiko bilkuraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2009ko ekainaren 3an ospatutako ez ohiko premiazko bilkuraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

• **Apirilaren 29ko 2009/34 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Argana auzoan lurbanaketa egiteko onarpena.

• **Apirilaren 29ko 2009/35 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kanpantxu eta Mendieta auzoak lotzen dituen landabidea egokitzeko lanen II. Fasea onartzea, guztira 282.834,32 euroko aurrekontuarekin.



Ajangizko Udala

- **Maiatzaren 7ko 2009/36 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Nabarnizko Udalak egindako likidazioa eta aurkeztutako fakturak onartuz, pilen bilketa eta errezikleta zerbitzuari dagozkion 105,87 euro ordaintzeko agindua ematea.
- **Maiatzaren 7ko 2009/37 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko maiatzaren 31an ospatuko den Zaldi Martxarako Ajangizko Udal jabegopeko herri bidea eta zuhaitzak erabiltzeko baimena ematea.
- **Maiatzaren 7ko 2009/38 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kontseiluari 2009 ekitaldirako aurreikusi dituen helburuak lortzen laguntzeko 300,00 euroko dirulaguntza ematea.
- **Maiatzaren 7ko 2009/39 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** E.M.O.ri Kanpantxu auzoan kokatuta dauden 4. Poligonoko 183 eta 209 lurzatiak, 5. Poligonoko 137, 157 eta 125 lurzatiak eta 6. Poligonoko 45, 46, 47, 84 eta 86 lurzatiak oinarritzko lurzailetik banatzeko baimena ematea.
- **Maiatzaren 12ko 2009/40 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko aisialdi ekipamenduak egokitzeko (Kanpantxuko frontoia eta plaza margotzea, Mendietako plazako haur jolasak konpontzea eta Kultur Etxe ondoan barandila jartzea) 17.964,91 euroko gastua onartzea, 2009ko udal aurrekontuko 460.60105 partida aplikatuz.
- **Maiatzaren 13ko 2009/41 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-**Iberdrola Distribución Eléctrica S.A.k 2009ko martxoaren 4ko 15/2009 Alkate Dekretuaren aurka jarritako berjartze errekurtsuari ezetza.
- **Maiatzaren 20ko 2009/42 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** GUZTIONA auzo elkarteari 764,24 euroko dirulaguntza ematea.
- **Maiatzaren 22ko 2009/43 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizen (Bizkaia) frontoi estali berria eraikitzeko proiektuaren erredakzioa, eta kasua bada, lanen zuzendaritza kontratatzeko lehiaketa mugatuaren lehenengo, bigarren eta hirugarren sarien irabazleak izendatzea eta lehiaketako epaimahaiak egindako proposamenarekin bat, Octavio Pérez Monfort, Miguel Angel Nalda Ramirez, Edgardo García Ragazzi, Enric Farrerons García, Alex Borrás Ortega eta Juan José Valdecantos Núñez, UTE Blur Arquitectura, kontratuaren behin behineko esleipendun izendatzea.
- **Maiatzaren 28ko 2009/44 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren erredakzio eta tramitazio kontratuaren behin behineko esleipena Begola Arbe Atxa eta Ula Iruretagoiena Busturia ekipoaren alde egitea.
- **Maiatzaren 29ko 2009/45 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** A.L.U.ri Ajangizko landalurreko katastroko 3. Poligonoko 349 lurzatian dagoen ardientzako txabolako 20 m² inguruko erretila konpontzeko baimena ematea.



Ajangizko Udala

- **Maiatzaren 29ko 2009/46 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Construcciones Morga S.L. enpresak aurkeztutako eskaera kontutan hartuta, Mentzeta auzora doan landabidea egokitzeko I. faseko lanek sortutako betebeharrei aurre egiteko jarritako LAU MILA ZORTZIREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (4.871,64 €) euroko La Caixa-ko 2007ko irailaren 10eko 9340.03.0853080-69 zenbakiarekin Bermeen Errolda berezian inskribatutako behin betiko bermea itzultzea.

- **Ekainaren 2ko 2009/47 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M^a Begoña Arbe Acha eta Ula Iruretagoiena Busturia andreek Ajangizko Hirigintza Antolaketarako Plan Orokorraren erredakzio eta tramitaziorako zerbitzu kontratua bermatzeko aurkeztutako 11.625,61 euroko 2009034709 zenbakidun behin-betiko bermea onartu eta ondorioz 2009ko apirilaren 20an jarritako 7.080,00 euroko 200904719 zenbakidun behin behineko bermea itzultzea.

- **Ekainaren 2ko 2009/48 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bilboko Administrazioarekiko Auzietako 2. Zenbakidun epaitegiak eskatutakoaren arabera, Ajangizen estalitako frontoi berria eraikitzeko proiektuaren erredakzioa eta kasua bada lanen zuzendaritzarako kontratua esleitzeko prozedurari buruzko espedientea bidaltzea.

- **Ekainaren 5eko 2009/49 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** J.O.G.ri, Ajangizko Agarre baserriko erretila eta ondoko oilategiko erretila konpontzeko baimena.

- **Ekainaren 15eko 2009/50 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.J.B.ri, Ajangizko Maloste auzoko 13an dagoen Ibinarriaga dorretzeko fatxadak egokitzeko baimena.

- **Ekainaren 18ko 2009/51 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** GERNIKA CLUB taldeari 200 euroko dirulaguntza ematea, 2009-2010 ikasturteko gastuetan laguntzeko.

- **Ekainaren 18ko 2009/52 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Barrutia Eskualdeko Eskola Publikoaren Guraso Elkarteari, larehun eta berrogeita hamar (450,00 €) euroko laguntza ematea, eskolaz kanpoko orduetan burutzen diren ekintzetarako monitore kostuari aurre egiteko, 2009 urteko aurrekontuaren gain.

- **Ekainaren 19ko 2009/53 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ekainaren 20an, I. Goitibehera Jaitsiera ospatzeko, Kanpantxuko plaza eta Arabieta bitarteko bidea ixteko baimena ematea, arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara.

3.- MAIER MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO II. FASEKO LANAK ESLEITZEKO ESPEDIENTEA, ADMINISTRAZIO BALDINTZEN PLEGUA ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Espedientea osatzen duten txostenak aztertuta eta Maier-Mendieta landabideko II. fasea burutzeko proiektua aurrera eraman asmoz, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:

Lehenengo.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen II. faseko lanak prozedura negoziatu bidez kontratatzeko espedientea eta kontratua araupetzeko administrazio-baldintza zehatzen agiria onartzea, baita 282.834,32 €ko gastua ere.



Ajangizko Udala

Bigarren.- Proiektua eta preskripzio teknikoen orria onartzea.

Hirugarren.- Esleipena egiteko jardunbideari hasiera ematea.

4.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO II. FASEKO LANEN ZUZENDARITZA ETA SEGURTASUN ETA OSASUNAREN KOORDINAZIOAREN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko I. faseko lanak burutu ahal izateko, lanen burutzapenerako asistentzia teknikoa eta zuzendaritza kontratatzea nahita nahiezkoa da. Eskatutako aurrekontuaren arabera 7.130,28 euroko kostua izango luke lan horrek.

Jasotako eskaintza aztertuta eta Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituen legea kontutan hartuta, espedientea osatzen duten txostenetan oinarrituz,

Udal Osoko Bilkurak, aho batez adosten du:

Lehenengo.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko lanetarako asistentzia teknikoa eta lanen zuzendaritza INGENIERIA ARTAZA S.L. enpresako Carlos Ortiz de Zarate jaunari agintzea, 7.130,28 euroko kostu orokorrarekin.

Bigarren.- Ebazpen honen berri esleituari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

5.- MENDIETAKO FRONTOI ESTALI BERRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ERREDAKZIORAKO ZERBITZU KONTRATUAREN BEHIN-BETIKO ESLEIPENA, BEHAR BADA.-

Espedientearen berri eta Alkatetzak 2009ko maiatzaren 22ko 2009/43 Alkate Dekretuz onartutako behin-behineko esleipena ikusita. Esleitutakoek Administrazio Baldintza partikularren pleguetan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu dutela kontutan hartuta.

Batzarreratuek aho batez adosten dute:

Lehenengo.- Lizitazioa ontzat eman eta AJANGIZKO FRONTOI ESTALI BERRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ERREDAKZIO kontratua UE BLUR Arquitectura enpresari esleitzea, HIRUROGEITA HIRU MILA EHUN ETA LAU (63.104,00 €) (BEZ barne) euroko prezioan. Exekuzio epea sei (6) astekoa izango da lehiakideak aurkeztutako proposamenarekin bat, eta exekuzioa pleguetan eta aurkeztutako eskaintzak jasotakoan oinarritu beharko da.

Bigarren.- 2009ko udal aurrekontuko 432.62901 partidaren gain 63.104,00 euroko gastua onartzea.



Ajangizko Udala

Hirugarren.- Kontratuaren behin-betiko esleipena esleituari jakineraztea eta hamar eguneko epean kontratua administrazio dokumentuan formalizatzeraz etortzeko deialdia zuzentzea.

6.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkateak udalak uda aldirako bi langile kontratatu dituela azaltzen du, hiru hilabeterako. Kontratazioa INEMeko zerrenda eta udaletxean izandako lan poltsa kontutan hartuta egin da. Bi zerrenda hauetatik aurkeztu direnak bost izan ziren, eta hauen artean zozketa egin zen bi hautatzeko. Epe honetan bedarrak moztu, kunetak garbitu, farolak lijatu eta margotu... egingo dituzte eta udal operaria oportetan dagoen bitartean bere ordezkotza.

- Kanpantxuko elektrifikazio lanak direla eta, Alkate jaunak lanen berri ematen du. Zazpi hodi sartuko dira, lau elektrizidadea eramateko, hauetako bat Busturialdeko Uren Partzuergoarena, bat Telefonikarako eta beste bat argindar publikorako. Honekin inguru horretako posteak kentzea espero da. Gero Iberdrolak transformadorea berak jarriko duela aipatu du, eta obrak etxe bakoitzerako toma eginda itxiko du, gero nahi duenak, etxe aurreko posteak kentzeko bere etxerainoko kondukzioa egin beharko duelarik.

Alkateak azaltzen duenez, lanen exekuzioa aurrera doala Barayazarra eta Olaetatarren baserri inguruan sortu da arazoa, toki horretan karkaba mantendu nahi baitute, bertan jasotzen den ur guztiari bidea emateko. Ostegunean lan zuzendariarekin bertan egonda, uren arazoari irtenbidea bilatu zitzaion tubo berri bat sartu eta ura errekaratuz. Horretarako Olaetatarren lurretatik igaro behar dela kontutan hartuta, hauei baimena eskatu zitzaion eta uraren arazoa konpontzearen truke konforme azaldu ziren. Tubo hori jartzean, gaur egun Barayazarratarrengana doan gaur eguneko tuboa itxi egingo da, horrekin errekatik etxera datorren urari bidez itxiz.

Azkenik obraren kartela ere jarri dela aipatzen du Alkateak.

- Alkate Udalburuak azalpenekin jarraituz, Gernika-Lumoko Udalarekin akordioak zein puntutan dauden azaltzen du. Santa Luziarako argindarra eramateko Ajangizko lurretatik linea berri bat jarri behar dutela kontutan hartuta, batzar bat egin zen Gernikako Alkatearekin. Bertan Ajangizek Gernikari zerbitzuak ematearen truke zerbait irabazi behar zuela aipatu zitzaion, gernikako zerbitzu ugari bait daude Ajangizko lurretan. Batzar haretan, herrian zenbait farola jartzea eskatu zitzaion gernikari, eta iadanik hasi dira Maloste inguruan lanean. Bizkerre bidea, Burgoan, Torrezuri, Leixarte, Lorategieta... dira eskatutako batzuk. Farola hauetako batzuk obra zibila ere badaukate.

Batzar hartan aipatu zen beste gaietako bat Gernikako Udalak urteetan jaso dituen Maierreko tasak izan ziren. Gai honi buruz ez dute inolako erantzunik eman.

- Beste gai bati ekinez, Alkateak Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gernikako Udala eta Ajangizko Udalaren artean Gernika eta Ajangizen arteko mugak zehazteko egin zen ekitaldia aipatzen du. Desanexioaren ondorioz bi udalen arteko mugak amojonatu gabe zeudela eta Erreterria ingurura abiatu eta mojiak ezarri dira.

- Saneamentuari dagokionez, Busturialdeko Uren Partzuergoak, ajangizko saneamentua Urdaibaiko saneamentura lotzeko proiektua nahiko aurreratua duela aipatzen du Carbonell jaunak. Egun hauetan geologoen kata batzuk egin behar dituzte, eta horretarako



Ajangizko Udala

afektatutako lurren jabeekin elkarrizketa egiteko eskatu diote udalari, zer egin behar den azaldu eta beraien lurretarako pasua utzi dezaten. Lan hau burutu ondoren, proiektua udaletxean aurkeztuko dute, aztertu eta jendaurrean jarri ahal izateko. Jendaurrean jarrita afektatuek beraien alegazioak egin ahal izango dituzte, ahal den neurrian denen arteko adostasuna lortzeko.

- Maierreko urbanizazioa dela eta arazoak sortu direla aipatzen du Alkateak, ekainerako egin behar zuten lehenengo fasea hasi ere ez baitute egin. Legalizazioari dagokionez ere, beraien esanetan preskripzioz dena legeztatuta omen dute. Gure asesoreek baina horrela ez dela diote, eta dekretu batzuk bidaliko zaizkie dokumentazioa eskatuz eta nolabait legeztatpenerako prozedura aurrera eramateko presioa eginez.

- Bukatzeko, Alkateak Bilboko Obispaduko Urrutxurtu aparejadorearekin izandako elkarrizketa aipatzen du. Gaur etortzeko omen ziren baina azkenean astelehenera atzeratu dute bisita. Aipatu dutenaren arabera, sarrera eta inguru guztiko kanaloiak konpondu nahi dituzte aurton, baina aurretik elizara bisitas egin nahi dute, Alkatearekin eta apaizarekin komentatzeko.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatziak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA